

3.7.4. UDAL-ALORRAK. HIRI-EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNA. BESTE ZERBITZU BATZUK.

OSASUNAREN PREBENTZIOA

Osasunaren prebentzioan, Udalak elikagaien ikuskapena, zoonosia, etab lantzen ditu. Helburua: elikagaien eta uren kalitate sanitarioa zaintzea eta, horrez gain, soinu-kutsadura ere zaintzea, besteak beste.

ELIKAGAIEN IKUSKAPENA

2017ko urtarrilaren 1ean, Iruñeko industrien eta establezimenduen erroldaren arabera, honako hauek zeuden: ostalaritzako 1.105 establezimendu, 1.129 elikagai-establezimendu eta elikagai-produktuekin lotutako bestelako 84 establezimendu edo jarduera iraunkor, bai eta jarduera ez-iraunkor batzuk ere.

Horiei dagokienez, 2.538 ikuskapen-bisita egin dira 2017an, sanferminetan egindakoak kontuan hartu gabe. Halaber, 14 alerta sanitariotan esku hartu da 2017an; Osasun Publikoaren Institutuak jakinarazi ditu horiek, eta elikagai-establezimendu edo farmazietan banatutako elikagai-produktuei buruzkoak ziren. Horrez gain, ostalaritza eta elikadurako 123 jarduera ez-iraunkorren aholkularitza edo kontrola ere egin da zenbait jai edo ospakizunen harira (San Blas, auzoetako jaiak, azokak, eskualde-etxeak eta antzekoak). Sanferminetan kontrol sanitarioko 108 esku-hartze egin ziren, eta haietariko 42tan gabeziak aurkitu ziren.

Lan horren ondorioz, 2017an 558 espediente ireki dira, ofizioz, elikagaien ikuskapenarekin lotuta. Horietatik, zehapen-espedientea hastea proposatu da 113 kasutan, eta gabeziak zuzentzeko errekerimendua edo ohartarazpena egiteko 428 txosten izapidetu dira.

2013tik 2017ra, ostalaritzan eta elikaduran izandako errekerimendu-espedienteak					
Sektoreak	2013	2014	2015	2016	2017
Ostalaritza	262	231	299	281	219
Elikadura	250	201	244	259	209
Guztira	512	432	543	540	428

2013tik 2017ra, ostalaritzan eta elikaduran izandako zehapen-espedienteak					
Sektoreak	2013	2014	2015	2016	2017
Ostalaritza	69	48	41	60	61
Elikadura	36	31	33	46	52
Guztira	105	79	74	106	113

Zerbitzuak, 2017an, guztira 588 elikagai-lagin hartu ditu, gehienak urtearen hasieran udal Laborategiarekin batera ezarritako laginketa-programaren barruan. Taula hauetan laburbilduta daude 2017ko laginen kopurua, elikagai moten arabera banaketa, laginketaren izaera eta analisisien emaitzak:

Elikagai Ikuskaritzak 2013tik 2017ra bitartean hartutako elikagai-laginak					
Sektoreak	2013	2014	2015	2016	2017
Udal Laborategiarekin egindako programa	497	562	538	516	538
Bestelakoak	49	34	59	30	50
Guztira	546	596	597	546	588

ZOONOSIA

Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroan sartutako zakurren eta katuen eboluzioa.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zakurrak	283	223	201	172	171	190
Katuak	130	82	63	36	35	37
Guztira	413	305	264	208	206	227

206 animalietatik, 121 jabeei itzuli zaizkie, eta 88 adoptatu egin dira. Udalaren webgunean adopzioak egiteko orri espezifiko bat dago; han dago informazio guztia eta animalien argazkiak ikusteko aukera.

Animaliak Hartzeko Zentroan adoptatutako animaliak (Animaliak Babesteko Elkartearen alde batera utzita)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zakurrak	139	87	79	68	51	64
Katuak	51	52	49	27	25	24
Guztira	190	139	128	95	76	88

Zehapen-espedienteak, animaliekin zerikusia duten arazoengatik

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zakurrak aske eramateagatik	41	51	93	114	62	128
Gorozkiak ez jasotzeagatik	24	21	27	12	15	21
Zakurrak egoera egokian ez edukitzeagatik	9	--	--	4*	4	6
Txertatze eta identifikazioarekin lotutako arau-hausteengatik	4	4	5	5*	--	8
APP araudia	46	33	32	49*	28*	64
Zakurrekin lotutako bestelako zehapenak	5	2	--	12*	10*	7
Bestelako animaliekin lotutako beste zehapen batzuk	6	1	7	6	2	1
Zergati guztiak	135	112	164	202	121	235

INGURUMEN-INGENIARITZA

Ingurumen-kutsatzaileen isuriak kontrolatzen ditu (zarata, usainak, keak eta gasak). Salaketei erantzuteaz gain, ofizioko ikuskapenak ere egiten dira.

	2013	2014	2015	2016	2017
Salaketak	192	211	171	174	199
Ikuskapenak	176	104	191	97	175

KUTSADURA AKUSTIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

	2013	2014	2015	2016	2017
Tabernak	58	60	48	46	50
Auzotarrak	71	100	56	66	71
Bestelakoak	49	37	44	42	44
Guztira	178	197	148	154	165

KEAREN ETA USAINEN KUTSADURAK ERAGINDAKO SALAKETAK

	2013	2014	2015	2016	2017
Kutsadura atmosferikoak eragindako salaketak (keak, usainak)	14	11	23	20	19

Ofizioko 983 ikuskapen egin ziren titularra aldatu edo lizentzia berria zuten taberna edo establezimenduetan, eta 22 espediente ireki ziren.

	2013	2014	2015	2016	2017
Ostalaritzako ikuskapenak	1126	1207	1033	777	833
Bestelako ikuskapenak	71	100	56	66	71
(merkataritza, industria)	203	184	195	132	150
Guztira	1329	1391	1228	909	983

INGURUMEN OSASUNA

Osasun eta ingurumen arloko ikuskapen-bisitak egiten ditu, eta haien osagarri, laginak hartzen ditu batzuetan. Udal Laborategiak egiten du lagin horien analisisa. Jardueren % 96,7 ofizioz egin zituen, eta % 3,3 baino ez herritarrek eskatuta.

Zaintza sanitarioaren arloan, honako hauekin zerikusia dute 2017an ofizioz eginiko urteko programek: iturriko uraren kalitate sanitarioa (1.469 lagin), ibaien lurgaineko urak (23 lagin), igerilekuak (587 ikuskapen eta 269 lagin-azterketa), hartzaindegia (37 ikuskapen), estetika eta norberaren garbitasuneko jarduerak dituzten merkataritza-lokalak (630 ikuskapen) eta merkataritza-lokal berriak (399 ikuskapen).

Ofizioko esku-hartzeak, urteko, zenbat ikuskapen eta lagun izan diren adierazita

	Ikuskapenak, guztira	Laginak, guztira
2011	1985	1806
2012	1728	1850
2013	1782	1677
2014	1772	1905
2015	1914	1790
2016	1904	1756
2017	1759	1761

UDAL-LABORATEGIA

Iruñeko Udal Laborategiaren eginkizun nagusia elikagaiei eta ingurumenari buruzko laginen analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egitea da; lagin horiek Elikagaien eta Ingurumen Osasunaren Ikuskaritzak hartutakoak dira, hiriko kontrol sanitarioaren parte gisa.

Laginketak eta analisiak gehienbat elikagai galkorrei dagozkie, eta bereziki kontsumitzeko prest dauden produktu landuei. Eskola-jantokietan, haurtzaindegietan eta zahar-egoitzetan eskainitako menuen gaineko laginketak egiten jarraitu da 2017an, eta jakien nutrizio-osaera aztertu da.

Elikagai mota	Laginak	Saiakuntza kimikoak	Saiakuntza	Guztira
Esnekiak				
Haragikiak	112	465	115	580
Arrainkiak	59	225	32	257
Olioak eta gantzak	2	2	0	2
Gozokiak eta izotzak	24	120	48	168
Plater prestatuak	122	124	227	351
Alergenoak	32	32	0	32
Bestelakoak	146	352	129	481
Guztira	543	1.432	627	2.059

Lorategi, parke eta ikastetxeetako 779 iturri publiko kontrolatu dira 2017an; 1.564 lagin hartu dira. Iruñeko elkarte guztien igerilekuetako uren 269 lagin aztertu dira; guztira, 3.228 determinazio kimiko eta 1.883 determinazio mikrobiologiko egin dira. Arga, Elortz eta Sadar ibaietako urak 23 lagin aztertuz kontrolatu dira; guztira, 253 determinazio kimiko eta 69 determinazio mikrobiologiko egin dira. Horrez gain, laborategiak 490 lagin aztertu ditu beste batzuek eskatuta; 78 lagin partikularrek eta enpresek bidalita, eta 412, erakunde ofizialek.

ZERBITZU SANITARIOAK

EPIDEMIOLOGIA ZERBITZUA

Zerbitzu hau zaintza eta analisi epidemiologikoez arduratzen da, bai eta osasuna sustatzeko eta bultzatzeko programak kudeatzeaz eta osasun publikoan ikerkuntza egiteaz ere. 2017an egindako jardueren artean, «Gosaldu, egunero» programa amaitu dela nabarmendu behar da. Programa hori Iruñeko Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxetan egin da (19 publiko eta 22 itunpeko), eta 2.047 ikaslek parte hartu dute (itunpeko ikastetxeetako 1.137, eta ikastetxe publikoetako 910).

Eguneroko gosariaren ezaugarriei buruzko inkestaren joera							
	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17
	%	%	%	%	%	%	%
Egunero gosaltzen du	96,7	95,8	96,9	96,0	96,2	94,5	96,2
Berak prestatzen du gosaria	30,2	30,7	30,8	27,0	20,5	30,2	20,0
15 minututik behera ematen du gosaltzen	83,5	78,1	80,6	79,8	78,2	78,8	75,8
Jolas-ordurako hamaiketako ekartzen du	94,3	95,9	95,8	97,0	97,3	97,8	80,3
Esnekiak eta zerealak gosaltzen ditu	58,2	59,0	57,0	50,5	51,6	48,2	58,5
Gosari osoa hartzen du	30,0	36,1	30,3	31,2	33,5	26,2	24,5

Jardueren beste multzo bat jarduera fisikoa sustatzera bideratua da, osasuna hobetze aldera. Zenbait bilketa nordiko antolatu ziren 2017an. Jarduera horri 2008an ekin zitzaion, eta orduetik 2.338 plaza eskaini dira.

Ibilketa nordikorako hastapen-saioak, 2008an hasi zirenetik

URTEA	Egunak	Saioen aldia	Tokiak
	%	%	%
2008	17	Iraila-Azaroa	255
2009	10	Martxoa-Maiatza	241
2009	15	Iraila-Azaroa	330
2010	8	Apirila-Ekaina	240
2010	7	Urria-Azaroa	210
2011	6	Apirila-Maiatza	180
2012	7	Apirila-Maiatza	196
2013	4	Maiatza	112
2014	4	Maiatza	112
2014	6	Iraila-Urria	168
2015	4	Maiatza	112
2016	8	Iraila-Azaroa	200
2016	5	Urria	125
2017	18	Iraila-Azaroa	504
Guztira			2.985

Epidemiologia Zerbitzuak, martxotik ekainera, bestalde, hiriko landare-espezie nagusietako polen-mailari buruzko doako argibide-zerbitzua ere eskaintzen du, polen haiekiko sentiberak diren herritarrengan arazoak sor ditzaketelako. 2017an, 1.323 pertsonak bat egin dute aler-ta-zerbitzu honekin.

Polen-mailari buruzko argibidea jasotzen duen lagun kopuruaren bilakaera

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Izena emanda	362	530	846	1.035	1.182	1.323

̄IGIENE- ETA DESINFEKZIO-ZERBITZUAK

Iruñeko Udalak arratoi-garbiketa eta desinfekzio-lanak egiten ditu hirian, eta garbitasun arloko zerbitzu publikoak ere eskaintzen ditu bainuetxe eta komun publikoen bitartez, besteak beste.

DESINFEKZIO PARKEA

Desinfekzio-parkeak arratoi-garbiketa, desinfekzio, intsektu-kentze eta usain-kentze lanak egiten ditu lokaletan eta bide publikoan, ofizioz zein partikularrek eskatuta.

	2013	2014	2015	2016	2017
Desinfekzioak (partikularrak)	17	9	15	18	11
Autoklabeak	60	79	107	94	117
San Domingoko eta Zabalguneako merkatuak	52	52	104	102	104
Udal Zerbitzuak (bide publikoa)	2.108	2.198	2.082	1.949	2.663
Arropa-garbiketa (zuhurtziazkoa)	175	249	332	254	227
Arropa-garbiketa (udal-egoitzak)	621	652	649	605	626
Guztira	3.033	3.239	3.289	3.022	3.748

KOMUN PUBLIKOAK

Hirian 10 komun tradizional daude (obretakoak eta langileek kudeatuta) eta 25 komun automatiko hiri-ko zenbait gunetan banatuta. Gehien erabilitako komun tradizionalak Gaztelu plazakoak, Basotxokoak eta Foruen plazakoak dira. Gehien erabilitako garbiketa automatikoko komunak Gaztelu plazakoak, San Frantziskokoak eta Sarasate pasealekukoak dira.

	Ekainaren 11tik 17ra	Azaroaren 19tik 25era	Batezbestekoa	Urteko estimazioa
Sarasate pasealekua	4.665	4.424	4.545	236.340
Antoniutti parkea	3.336	4.047	3.692	191.984
Basotxoa	5.309	4.210	4.760	247.520
Ziudadela	2.971	2.048	2.510	130.520
Foruen plaza	4.232	4.283	4.258	221.416
Gurutze plaza	3.267	3.796	3.532	183.664
Gaztelu plaza	10.448	7.766	9.107	473.564
Munduaren parkea	1.731	1.503	1.617	84.084
Media Luna parkea	2.372	905	1.639	85.228
Guztira	42.164	31.133	35.660	1.854.320

GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNEN ERABILERA

	2013	2014	2015	2016	2017
Gaztelu plaza	37.159	40.333	39.488	42.777	40.299
Sanduzelai	13.758	13.813	14.756	Sin datos	Sin datos
Magdalenako zubia	13.896	13.842	14.120	Sin datos	Sin datos
Runako parkea	13.432	11.077	14.462	15.122	12.975
Maiteminduen parkea	12.593	13.432	10.386	7.977	9.099
Mendillorri ikastetxea	8.869	7.914	8.119	10.093	7.366
Mendillorriko aintzira	4.218	4.111	4.538	4.563	5.617
Karrikiri	4.775	5.307	5.070	4.279	Sin datos
Felisa Munarriz plaza	9.947	10.649	6.994	7.401	5.833
Sarasate pasealekua	33.282	33.586	31.447	27.686	34.846
La Olivako Monasterioa	22.371	23.160	23.782	23.568	Sin datos
Ibarbidea	17.892	10.319	10.377	9.681	9.041
Gartzia Naiarakoaren pasealekua	21.896	22.398	22.195	12.603	Sin datos
Serafin Olave	18.940	23.201	23.147	22.959	23.795
Ilargi-Enea parkea	6.004	4.372	6.900	5.818	7.698
Karlos III.a	15.489	20.034	24.377	31.512	36.427
San Roke	6.844	6.024	3.428	4.463	5.609
Martzilla monasterioa	5.247	5.972	4.436	4.690	4.327
Viñaburu-Ospitaleak	3.736	3.815	2.977	2.867	2.874
Turrillas plaza	4.396	6.368	6.408	6.050	6.914
Gares plaza	4.951	5.583	6.271	5.604	5.846
Erriberri	4.646	6.538	7.200	7.271	7.408
San Frantzisko		25.916	36.901	36.187	41.667
Alfredo Landa-Lezkairuko Zaldia		8.942	12.955	12.779	8.587
Sandua pasealekua			4.938	10.046	9.954
Taxoare					3.871
Guztira	284.341	326.706	345.672	315.996	290.053

BAINUETXEA ETA ANTONIUTTIKO DUTXAK

Bainuetxean, Eslava kalean, egunero ematen zaio dutxa-, bainu- edo arropa garbitzearen zerbitzua halakorik eskatzen duen jendeari. Zerbitzuak zortzi dutxa-kabina ditu jendearen eskura, bai eta 6 bainu-ontzi (bi egokituak, desgaituek erabil ditzaten), hiru garbigailu eta hiru lehor-gailu ere.

DUTXEN ERABILERA

	2013	2014	2015	2016	2017
G. zerbitzuetako dutxen kopurua	809	741	678	768	956
Dutxak, guztira	8.123	7.190	6.963	7.153	6.667
Bainu kopurua	11	4	1	24	19
Dutxak eta bainuak, guztira	8.134	7.194	6.964	7.177	6.686

	2013	2014	2015	2016	2017
G. zerbitzuetako garbiketen kopurua	370	571	865	783	905
Garbiketak, guztira	1.095	1.240	1.545	1.615	1.659
Lehorketa kopurua	942	1.142	1.477	1.488	1.565
Garbiketak eta lehorketak, guztira	2.037	2.382	3.022	3.103	3.224

XIRINGEN BILKETA

Bide publikoan utzitako xiringak jasotzea eta deuseztatzea da zerbitzu honen eginkizuna, hondakin sanitarioen bidez ustekabeen gaixotasunak transmititzeko aukerarik izan ez dadin. Astean bitan, jasotzeko ibilaldiak egiten dira, eta xiringa gehien Sanduzelain eta Zabalgunean aurkitzen da.

Bildutako xiringak, sektoreen arabera. Bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017
Alde Zaharra	11	3	6	3	8
Arrotxapea	4	15	4	10	18
Sanduzelai	17	2	4	12	5

	2013	2014	2015	2016	2017
Donibane	145	63	18	9	15
Txantrea	7	1	0	1	5
Zabalgunea	9	7	10	6	1
Milagrosa	0	0	0	3	0
Landaben	0	0	0	0	0
Etxabakoitz	5	0	0	0	0
Iturrama	0	0	0	0	0
Mendillorri	0	1	0	0	0
Guztira	198	92	42	44	52

UDAL-HILERRIA

Iruñeko San Jose hilerrian gorpuak ehorzten eta errausten dira (eta gorpuak hobitik atera, berriro ehortzi eta gorpuzkiak erraustu), betiere behar bezalako baldintzetan higieneari eta osasunari dagokienez, errespetuz eta garbitasunez.

Iruñeko hilerriko ehorzketak. Bilakaera

Ehorzketa motak	2013	2014	2015	2016	2017
Nitxoak	481	500	457	427	435
Lurra	19	20	15	8	24
Panteoiak	189	234	214	184	183
Gorpu-errausketak	1.568	1.786	1.888	2.078	2.033
Guztira	2.257	2.540	2.573	2.697	2.675

Iruñeko hilerriko desehorzketak. Bilakaera

Desehorzketa motak	2013	2014	2015	2016	2017
Beste hilerri bat	254	84	9	19	25
Hezurtegi bateratua	675	795	681	803	592
Berrehorzketak	139	106	127	136	126
Gorpuzkien errausketak	328	240	277	261	238
Guztira	1.396	1.225	1.094	1.219	981

2017. urtea bukatzean, hilerrian libre zeuden 3.094 nitxo (aurreko urtean baino 172 gehiago), 34 lur-hilobi eta 94 kolunbario. Errauts-kolunbarioen urritasuna gorpuzkietarako kolunbarioez osatzen da, errautsak sartzeko ere erabiltzen baitira.

Iruñean ehortzitako kanpotarrak	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Iruñerriko herrietakoak	393	384	510	485	520	538	442
Nafarroako beste herri batzuetakoak	343	345	372	397	479	555	543
Beste probintzia batzuetakoak	51	39	60	66	52	80	73
Guztira	787	768	942	948	1.052	1.173	1.058